


Euskalduna Bilbao

Irisgarritasun gida



EUSKALDUNA
BILBAO

01 APARKALEKU PROPIOA



- **Egokitutako 16 plaza**, SIA sinboloarekin eta argi-seinale urdinarekin seinaleztatuta.

-1 Solairua	-2 Solairua	-3 Solairua
4 plaza	4 plaza	8 plaza



- **2 igogailu, kabina egokituekin.**
Aparkalekuko solairu guztiak kanpoaldearekin komunikatuta daude.


- >> Aparkalekuko -1 solairuko "Euskalduna" irteera-adierazpenean dagoen igogailua kafetegiarekin, bulegoekin eta eraikineko 1. sarrerarekin konektatuta dago.
- >> 0 solairuan, bi igogailuak komunikatuta daude 1. eta 2. sarrerekin, leihatilekin, kanpoko 2. aretoarekin, kamerinoekin eta igogailuen eremuarekin, jatetxeetara sartzeko kabina egokituekin.



- **Komun egokitua** aparkalekuko -1 solairuan.



02 EUSKALDUNARAKO SARBIDEAK



- **Eraikinerako sarrera guztiak** egokituta daude.
 - >> Kanpoko edozein atetatik sartuta, eraikineko solairu eta areto guztietara iristeko moduko ibilbideak daude.



- **Jatetxe** irisgarriak.
 - >> Eraikinaren kanpoaldean, bi igogailu panoramiko daude, eta jatetxeetara sartzeko egokitutako kabinak dituzte.



03 MUGIKORTASUN BERTIKALA



- Igogailu guztiak **egokituta** daude gurpil-aulkia erabiltzen duten pertsonentzat.



- Igogailu guztiek dituzte **erliebezko eta braille botoiak**, **ahots-abisagailua** eta solairua adierazten duen **display optikoa**.



04 KOMUNAK




- **Larrialdietarako sakagailuarekin** egokitutako 19 kabina. Estaldura instalazio guztietan.



- OE aretoaren eta kafetegiaren ondoko komunetan **haurxoentzako aldagailuak** daude.




05 ARETOAK



- Gela guztiek dituzte gurgil-aukiak erabiltzen dituzten eta mugikortasun murriztua duten pertsonentzako **guneak**.



- “XL” **neurri bereziko** besaulkiaren beharra.
 - >> Eserleku hori eskatzeko, mezu bat bidali behar da **info@euskalduna.eus** helbidera, ekitaldia (ikusbizua edo batzarra) egin baino 5 egun lehenago, gutxienez. Euskaldunak besaulki hori erabilgarri dagoen baieztatuko du.



- **Agertoki** egokituetarako sarbidea.
 - >> Areto guztietako agertokietarako sarbideek ibilbide irisgarria dute, arrapala edo plataforma jasotzaile baten bitartez. Arrapala desmuntagarria eta jasogailua instalatuta egon daitezke, bezeroak hala eskatzen badu.



05 ARETOAK



- **Begizta magnetikoa**

>> Honako areto hauetan, ekitaldi eta ikuskizun guztiek begizta magnetikoaren bidezko soinu anplifikatua dute.

Auditorium	0C Aretoa	0A Aretoa	3A Aretoa	5 H Terraza
0B Aretoa	0D Aretoa	0E Aretoa	5A Aretoa	2 Exterior Aretoa

>> Begizta magnetikoa mailegagarri dagoen elementu bat da, eta bezeroak eskatuta erabil daiteke.

>> Kontsultatu zerbitzuaren erabilgarritasuna aldez aurretik, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 18:30era, **944 035 000** telefonoan edo posta elektronikoz, hemen: **info@euskalduna.eus**. Eskaera hori 5 egun lehenago egin behar da, gutxienez. Eskaera erregistratu egingo da, eta eskatzailearen datu pertsonalak jasoko dira, NANA, pasaportearen edo antzekoa barne; azken hori gailua erabiltzeko utzi beharko da.



06 AKREDITAZIO-MAHAIK ETA ARROPAZAINDEGIAK




- **Akreditazio-mahai** eta **arropazaindegi** guztiak egokituta daude.



07 TXARTELDEGIA




- Entzunezko begizta magnetikoa duten gurpil-aulkien erabiltzaileentzat **egokitutako erakusmahaia**.



- Emanaldi guztiek gurpil-aulkia erabiltzen duten pertsonentzako eta haien laguntzaileentzako **eserlekuak** dituzte.
 - >> PMR eta PSR eserlekuak gure webgunearen bidez (www.euskalduna.eus) edo txarteldegietan eros daitezke.
 - >> Gurpil-aulkiaren erabiltzaileentzat identifikatutako eserlekuren bat erosiz gero, eta laguntzailearentzat erreserbatutako eserlekuak gurpil-aulkia ere behar badu, mesedez, adierazi premia hori **info@euskalduna.eus** helbide elektronikoaren bidez edo **944 035 000** telefonoaren bidez, ekitaldia baino 5 egun lehenago, gutxienez.



08 KAFETEGIA ETA JATETXEAK



- Kafetegi eta jatetxe **irisgarriak**.
 - >> Kafetegia eta jatetxeak irisgarriak dira eta komuneko kabina egokituak dituzte.
 - >> Abandoibarra kafetegiak sarbide zuzena du eraikinaren kanpoaldetik eta aparkalekutik.
 - >> Abandoibarra kafetegiak eta Jauregia jatetxeak elikadura-premia bereziak dituzten bezeroentzako diseinatutako menuak dituzte. Derrigorrezkoa da gutxienez 24 ordu lehenago abisatzea, 944 035 151 telefonora deituta.



09 GURPIL-AULKIAK



- Gurpil-aulkia **mailegatzeko** zerbitzua eskuragarri dago.

>> Gurpil-aulkia mailegatzeko eskaera egin aurretik, **944 035 000** telefonora deitu beharko da, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 18:30era, edo posta elektronikoz **info@euskalduna.eus**-era idatzi.

Eskaera gutxienez 5 egun lehenago egin beharko da. Eskaera erregistratu egingo da eta eskatzailearen datu pertsonalak jasoko dira, NANA, pasaportearen edo antzekoa barne; azken hori gurpil-aulkia kentzeko utzi beharko da.



10 GARRAIO PUBLIKOA



Tranbia

>> Geltokia Euskalduna Jauregiko sarrera nagusian dago.



Metroa

>> Euskalduna Jauregitik hurbilen dagoen geltokia San Mames da. (irteera: Sabino Arana etorbidea).



Autobusa

>> **Bilbobus** (56, 62, 28 lineak, eta A3 linea Olabeagarako noranzkoan); geralekua Jesusen Bihotza plazan.

>> **Bizkaibus:**

- Aireportuko linea (3247)
Geralekua Kale Nagusia 79
- Bilbo-Muskiz linea (3340)
Geralekua Kale Nagusia 74
- Bilbo-Santurtzi linea (3151)
Geralekua Kale Nagusia 74



Taxia

>> Taxis accesibles:

- Tele taxi Bilbao: 94 410 21 21
- Radio taxi Bilbao: 94 444 88 88



Premia edo laguntza bereziren bat behar izanez gero, mesedez, kontsultatu edozein ekitaldi egin edo bertara joan baino gutxienez 5 egun lehenago.



www.euskaldunabilbao.com
www.euskalduna.eus
info@euskalduna.eus